

## BILBOKO OSPETSUAK 2020

### ESTIBALIZ BARRON PARDO

“Bilboko pertsona kalteberei elkartasuna eta laguntza emateko balioekin duen konpromisoagatik”.

Bizitza osoa, pertsonala zein profesionala, Bilbon eman du, 1963an jaio eta Indautxu auzoan bizi izan zen, alondegiaaren aurrean (gaur egungo Azkuna Zentroa) eta desagertutako zahato-denden gainean, Zazpi Kaleetara ezkondu zen arte, gaur egun bertan bizi baita.

Karmeldarren ikastetxean ikasi ondoren, Psikologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Bertan ere, ondoren, Osasun Mentala eta Teknika Psikoterapeutikoak Masterra eta Taldeko Psikoterapia Analitikoa Masterra egin zituen. Aldi horretan, klinikako espezialista gisa prestatu zen Gurutzetako Ospitalean eta Basurtokoan.

Ibilbide profesionalaren zatirik handiena gizarte-sektoreko lanari lotuta dago, batez ere, adikzioen esparruan. Gizakia Fundazioan voluntario gisa hasi zen lanean, eta 1994an profesionalen taldera pasatu zen. Arrisku-portaerak zitzuten nerabeei arreta emateko programa koordinatu zuen 1999ra arte, urte horretan erakundeko zuzendari izendatu baitzuten, eta kargu horretan jarraitzen du gaur egun ere.

Estibaliz Barron, zaurgarrienei laguntzera erabat emana, Bilboko Udalarekin lankidetza estuan aritu da etxerik gabeko pertsonei arreta emateko konfinamenduaren hilabeterik gogorrenetan.

Gizakiak aktiboki parte hartzen du hirugarren sektoreko partaidetza-sare eta -espazioetan. Erakundearen arduradun gisa, Bilboko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako Droga Mendekotasunen Aholku Batzordeko, Gizardatzeko Zuzendaritza Batzordeko eta EAPN-Euskadiko Zuzendaritza Batzordeko kide da. Sare horretako ordezkaria da Bizkaiko Foru Aldundiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Taldeekin lan egiteko eta etengabeko prestakuntzarako duen interesak irakasle lana ere bultzatu du. 1996az gerontik, OMIE Fundazioko irakaslea da, eta Deustuko Unibertsitatean ematen den Taldeko Psikoterapia Analitikoko Masterreko irakaslea. Taldeko Psikoterapia Elkarteko (APAG) presidenteordea ere bada, baita IGAko (Talde-analisi Institutua) eta Espainiako Psikoterapiaren eta Taldeen Tekniken Elkarteko (SEPTG) kidea ere.

Bere zaletasunen artean txistularia dela azpimarratu behar da. Udal Txistu Akademian ikasi zuen, Andra Maria kaleko Mugika Eskoletan zegoenean. Bertan, "Boni" (Bonifacio Fernández Ortiz txistularia) bere irakasleetako bat izateko zorte handia izan zuen.

## FERNANDO CANALES ETXANOBE

"Bilbo gastronomiako izarren artean kokatzeagatik, bere ilusio, dedikazio eta sukaldaritzako dohain bikainekin".

Bilbon jaio zen 1962an, eta bere lanbideaz maiteminduta dagoen sukaldaria da. Ostalaritza ikasi zuen Leioako Eskolan, lehen promozioan. Frantziara joan zen eta Franciss Ducasseren eskutik (Alain Ducasseren lehen maisua) sukaldaritzza profesionalean hasi zen.

1998an **Etxanobe** jatetxea ireki eta zuzendu zuen Euskalduna Jauregian, bere amaren abizena eramango duena. Michelin izar bat eta Repsol gidan 2 eguzki zituen jatetxeko jardueraz gain, beste kalifikazio batzuen artean, hainbat komunikabiderekin kolaboratzen du eta 7 urtez Localia TVko sukaldaritzza programa egin zuen. Ohiko kolaboratzailea da tokiko zein estatuko irratia eta telebistetan.

Jarrera inkonformista du, erronka berritzaileei aurre egitera bultzatzen duena, hala nola Hong Kongen mila lagunentzako bazkaria ematea, edo Dubain (Arabiar Emirerri Batuak) pintxo-taberna bat martxan jartzeko aholkularitza ematea, edo Biasteriko upategi baten enkarguz 120 lagunentzako uztartze-bazkaria ematea, Moskuko erdialdeko jauregi-jatetxe batean. Anbotoko magalean dagoen **Akebaso Jatetxe Baserrria** zuzentzen du Axpen, Atxondoko aranean. Horrez gain, Euskalduna jauregiko ostalaritzako aholkulari eta bazkide da, eta Getxoko (Bizkaia) Ereaga hondartzako **Los Tamarises** jatetxeko sustatzaile eta bazkide, baita Bilboko ostalaritza lokal zaharreneko **Los Feros** jatetxekoa ere, gaur egun, Michelin Bib Gourmand bat duena eta erreferentziazko tapa-jatetxe eta sukaldaritza eskola dena.

2018ko urtarrilaren 24an, Fernando Canales, Mikel Población lagun eta lankidearekin batera, Euskalduna Jauregia utzi eta Juan de Ajuriaguerra kaleko 8. zenbakira joan zen, Bilbo erdialdera, eta bi jatetxe ireki zituen: bata oso goi mailako sukaldaritza duen gastronomikoa, **Atelier Etxanobe** izenekoa, eta bestea modernoagoa eta gaur egungo, **La Despensa del Etxanobe** izenekoa. **Gastronomiaren emozioa** ulertzeko bi modu eta bi giro.

Gastronomiako aholkulari gisa, arlo hori garatu du Espainiako zenbait jatetxeri aholku emanet. Horrez gain, sukaldaritzako erakustaldiak egin ditu Tokion, Brasilen, Düsseldorfene eta Hanburgon, Venezuelan, New Yorken, Milanen, Turk and Caicos uharteetan, Moskun, Beiruten, Mexikon, Parisen, Txinako Tian Jinen eta Libanon.

Sukaldaritza-lehiaketetan epaimahaikide gisa parte hartzen du, Espainia osoan ematen ditu ikastaroak, zenbait kofradia gastronomikoren ohorezko kofradiakidea da eta jaso dituen sarien artean hauek nabarmentzen dira:

- Urrezko txanoa Intxaurrendoko aste gastronomikoan, 2000.
- La Gula de Oro Madrid Saria, 2003.
- Euskadi Gastronomia Saria, 2005
- Jatetxeen saria Espainiako jatetxe onenari, 2006

- Sukaldariari saria Cinegourland gastronomiako lehen jaialdian, 2006
- En Boga aldizkariaren saria, 2008
- Urrezko Sardexka Saria, Xerezan, 2010
- Getxoko Ospetsuak Saria, 2012
- Getxoblog UR Saria, 2013
- Chef Millesime Saria, 2014

## ITZIAR LAZKANO SETIÉN

"Bere ibilbide artistikoagatik eta kultura eta arte eszenikoak Bilbon eta Bilbotik zabaltzeko egindako ekarpenagatik".

1957an Portugaleten jaioa, antzerkian bereziki zaildutako aktore eta zuzendaria da. 1979an "Comicos de la Legua" taldearen Antzerki Eskolan sartu zen eta ondoren Ramon Bareak sortutako Karraka antzerki taldean parte hartu zuen. Bertan, aktore lanak egiteaz gain, antzerkia eskoletan sartzeko lan egin zuen. Halaber, ahots- eta interpretazio-eskolak eman ditu Musika Ikasketen eta Arte Eszenikoen Zentroan eta Basauriko Antzerki Eskola Ofizialean. Ernesto del Río zuzendari bilbotarraren "El amor de ahora" filmean sartu zen lehen aldiz zineman, 1986an.

Bere ibilbide luzean zehar, filmetan, telesailetan eta antzezlanetan agerpen ugari izan ditu, eta zuzendari lana ere nabarmentzekoa da; adibide gisa, honako hauek azpimarra daitezke: *Y todo por amor*, *Ocaña*, *Obabakoak* antzezlanak; *Centro Médico*, *La víctima nº 8* telesailak; eta *La ciudad blanca* eta *Pikadero* filmeak, berrienak aipatzearren.

Itziar Lazkano Estatu osoan zehar ibili da bere antzerki-ikuskizunekin, eta hainbat sari jaso ditu, bai aktore gisa, bai zuzendari gisa (Serantes saria, Valdemorillo zuzendari onenaren saria, Valladolid zuzendari onenaren saria, Jokularia saria euskal emakumezko aktore onenaren saria, Rosa Aguirre saria emakumezko aktore onenaren saria, Ercilla saria emakumezko aktore berri onenaren saria...).

## ARANTZA MATÍAS GURREA

"Bilbon tokiko eta familiako merkataritzan duen dedikazio eta defentsa nekaezinagatik".

Bilbon jaio zen, 1969an. Rafa Matiasek eta Chelo Gurreak izan zituzten lau seme-alabetatik bigarrena da, eta bizitza profesional osoan ehunen negozioan aritu den bakarra, nahiz eta anai-arreba guztiek familiaren negozioari lagundu dioten beti, baita Raquel Matías izekok ere. 1997an Oscar Landetarekin ezkondu zen, eta bi seme-alaben ama da, Maria eta Lucas.

Bere bokazioa gazte-gaztetatik hasi zen, 14 urterekin bere aitari Bartzelonara lan-bidaia batean lagundu zionean; 18 urterekin Bartzelonara itzuli zen eta Diseinua eta Marketina ikasi zituen Modako Arte eta Tekniken Eskolan, eta bertan lizentziatu zen bere espezialitatean eta bere promozioko lehena izan zen. Urte horietan, aldi berean, ehun-estanpazioko ikasketak egin zituen Massana Eskolan.

Cambridgen ingelesa hobetzeko denboraldi bat egin ondoren, familia-enpresan hasi zen 1991ko amaieran, Ercilla 28an enpresaren denda ireki zenean. Bere lanbideko lehen urteetan denda hartan merkatari izaten ikasi zuen eta izan zezakeen irakasle onenaren, Rafa Matiasen, adibideari jarraitu zion.

90eko hamarkadaren amaieran enpresaren katalogoak egiten hasi zen, erosketan parte hartu zuen - ordura arte bere gurasoek osorik zeramatena – bai eta giza baliabideen barne-kudeaketan ere.

Enpresaren merkataritza-jarduera, orduan, erosi eta saltzean oinarritzen zen, baina, handizkako salmenta garatzeko, beharrezkoa zen ehun-bilduma propioa izatea. Rafael Matiasek ehungintzan egindako ibilbide zabalak eta bere ezagutzek eskaintzen zituzten baliabide guztiak aprobetxatuz, 1999an merkaturatu zen enpresaren ehun esklusiboen lehen bilduma; gaur egun, ehun horiek eskaintzen dituzten oihal guztien %70 dira, eta bezeroek aintzatespen berezia ematen diete estanpazioei.

*Rafael Matías Tejidos* enpresako buru zela, merkataritza- eta ehungintza-sektoreek azken 15 urteetan jasan dituzten krisialdiak bizi izan ditu, eta enpresa egoeraren araberako beharretara egokitzen saiatu da, bai eta 2012an enpresan batez beste 35 urteko antzinatasuna zuten eta gehienak gaur egun zoriontsu erretiratuta dauden langileen ardura hartu ere.

Gaur, bizi izan duen erronkarik handienari egin behar dio aurre. Denoi eragiten digun eta merkataritza- eta ehun-sektoreari bereziki ahul bihurtu duen pandemiaren ondorioak.

Berrikuntzaren, erresilientziaren eta modernizazioaren premisarekin, abian den azken proiektua gidatzen du: ingurune digitaletako salmentaren garapena.

Halaber, eta bere aitaren tradizioari jarraituz, zeina beti izan baitzen asoziazionismoaren defendatzaile porrokatua, Arantza Matiasek Indautxuko merkatarien Elkartearen sorreran parte hartu zuen, gaur egun Bilbao Centro elkartean dagoena, eta Bilbao Dendak elkarteko presidentea izan zen 2007tik 2009ra.

Bere aitak, 1969an, Bilboko Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkarte aitzindaria sortu zuen, eta elkarre horretako lehendakari izan zen 1974 eta 1978 artean. Biek batera jaso zuten "Tradizioa eta etorkizuna" saria 2006an.

Enpresa Bilbon dago, eta ehunak handizka eta xeheka banatzen ditu. Bere egoitza nagusia Allende Salazar Jauregian dago, familiak 1976an erositakoa eta 83ko uholde izugarrien

ondoren erabat berritua, Posta kaleko 14. zenbakian, Bilboko Zazpi Kaleetako eraikinik esanguratsuenetako bat dena.

## ILUSTRES DE BILBAO 2020

### ESTIBALIZ BARRON PARDO

“Por su compromiso con los valores de la solidaridad y la ayuda a las personas más vulnerables de Bilbao”.

Toda su vida, tanto personal como profesional, ha transcurrido en Bilbao, donde nació en 1963, y vivió en el barrio de Indautxu, enfrente de la alhóndiga (actual Azkuna Zentroa) y encima de las ya desaparecidas boterías, hasta que se casó para trasladarse al Casco Viejo, donde reside en la actualidad.

Después de estudiar en el colegio de las Carmelitas, se licenció en Psicología en la Universidad de Deusto, donde posteriormente cursaría el Máster en Salud Mental y Técnicas Psicoterapéuticas y el Máster en Psicoterapia Analítica Grupal. Durante ese mismo periodo se formó como especialista en clínica en el Hospital de Cruces y en el de Basurto.

La mayor parte de su trayectoria profesional está ligada al trabajo en el **sector social**, fundamentalmente, en el ámbito de las adicciones. Comenzó su andadura en la **Fundación Gizakia** desde el voluntariado, pasando a formar parte de su equipo de profesionales en 1994. Coordinó el programa de atención a adolescentes con comportamientos de riesgo hasta 1999, año en que fue nombrada directora de la entidad, cargo donde continúa en la actualidad.

Estibaliz Barron, totalmente entregada a ayudar a los más vulnerables, ha colaborado estrechamente con el Ayuntamiento de Bilbao en los meses más duros del confinamiento con las personas sin hogar. Como responsable de la entidad, forma parte del Consejo Asesor de Drogodependencias del Ayuntamiento de Bilbao y del Gobierno Vasco, de la Junta Directiva de Gizardatz y de la Junta directiva de EAPN-Euskadi, red a la que representa en la Mesa de Diálogo Civil de la DFB.

Su interés por el trabajo con los grupos y la formación permanente ha impulsado su labor también como docente. Desde 1996 forma parte del profesorado de la Fundación OMIE y es profesora del Máster de Psicoterapia Analítica Grupal que se imparte en la Universidad de Deusto. También es Vicepresidenta de la Asociación de Psicoterapia Grupal (APAG), miembro del IGA (Instituto de Grupoanálisis) y de la Sociedad Española de Psicoterapia y Técnicas de Grupos (SEPTG).

Entre sus aficiones destacar que es txistulari. Estudió en la Academia Municipal de txistu, cuando estaba situada en las Escuelas de Música de la calle Santamaría, donde tuvo la gran fortuna de que “Boní” (el txistulari Bonifacio Fernández Ortiz) fuera uno de sus profesores.

## FERNANDO CANALES ETXANOBE

“Por situar Bilbao en las estrellas de la gastronomía con su ilusión, dedicación y excelentes dotes culinarias”.

Nacido en Bilbao en 1962, se define como un Chef **enamorado de su profesión**. Estudia Hostelería en la Escuela de Leioa, en su primera promoción. Se traslada a Francia y de la mano de Franciss Ducasse (primer maestro de Alain Ducasse) se inicia en la cocina profesional.

En 1998 abre y dirige el restaurante, **Etxanobe**, en el Palacio Euskalduna, que llevará su apellido materno. Aparte de su actividad en el restaurante, que contaba con una estrella Michelin y 2 soles en la guía Repsol, entre otras calificaciones, colabora con diversos medios de comunicación y durante 7 años llevó a cabo el programa de cocina de Localia TV. Es colaborador habitual en radio y televisión tanto local como de ámbito estatal.

De espíritu inconformista, le hace afrontar **retos innovadores**, como dar una comida para mil comensales en Hong Kong, o asesorar la puesta en marcha de un bar de pintxos en Dubai (Emiratos Árabes Unidos), dar una comida-maridaje para una bodega de Laguardia en Moscú, en un céntrico palacio-restaurante para 120 personas. Dirige, **El Caserío Restaurante Akebaso** situado en las faldas del Amboto en el Valle de Atxondo, Axpe. También es asesor y socio de la hostelería del palacio de euskalduna y promotor y socio del restaurante **Los Tamarises** en la playa de Ereaga en Getxo, Bizkaia, así como del restaurante **Los Fueros** el local de hostelería más antiguo de Bilbao y actualmente un restaurante de tapas y escuela de cocina referente con un Bib Gourmand de Michelin.

El 24 de Enero del 2018, Fernando Canales junto con su gran amigo y compañero Mikel Población, tras abandonar el espacio del Palacio Euskalduna se traslada a la Calle Juan de Ajuriaguerra 8 en el centro de Bilbao abriendo dos restaurantes, uno gastronómico de muy alta cocina llamado el **Atelier Etxanobe** y otro más moderno y actual que se llama **Restaurante la Despensa del Etxanobe**. Dos ambientes dos formas de entender la **emoción de la gastronomía**.

En su actividad como asesor gastronómico, ha desarrollado esta faceta asesorando varios restaurantes de la geografía española. Así como demostraciones culinarias en Tokio, Brasil, Düsseldorf y Hamburgo, Venezuela, Nueva York, Milán, Islas Turk and Caicos, Moscú, Beirut, Mexico, Paris, Tian Jin en China y en Libano.

Colabora como jurado en concursos de cocina, imparte cursos por toda la geografía española, es cofrade de honor de varias cofradías gastronómicas y entre sus varios premios destacan los siguientes:

- Gorro de oro en la semana gastronómica de Intxaurrendo, año 2000
- Premio La Gula de Oro Madrid, año 2003

- Premio Euskadi de Gastronomía, año 2005
- Premio restauradores al mejor restaurante de España, año 2006
- Premio al cocinero en primer festival de cine gastronomía Cinegourland, año 2006
- Premio revista En Boga, año 2008
- Premio Tenedor de Oro en Xerez, año 2010
- Premio Ilustres de Getxo, año 2012
- Premio Getxoblog UR Saria, año 2013
- Premio Chef Millesime, año 2014

## ITZIAR LAZKANO SETIÉN

“Por su trayectoria artística y su aportación a la difusión de la cultura y las artes escénicas en y desde Bilbao”

Nacida en Portugalete en 1957, es una actriz y directora curtida especialmente en el teatro. En 1979 ingresa en la Escuela de Teatro del grupo “Cómicos de la Legua” y posteriormente pasa a formar parte del grupo de teatro Karraka, fundado por Ramón Barea, donde, además de desempeñar sus labores de actriz, trabajó por **introducir el teatro en las escuelas**. También ha impartido clases de voz e interpretación en el Centro de Estudios Musicales y Artes Escénicas y en la Escuela Oficial de Teatro – Antzerki Eskola de Basauri. Su primera incursión en el cine fue en la película del director bilbaíno Ernesto del Río “El amor de ahora”, en 1986.

A lo largo de su dilatada carrera, tiene numerosas apariciones en películas, series de televisión y obras de teatro destacando también su papel de directora; a modo de ejemplo, se pueden destacar sus intervenciones en las obras de teatro *Y todo por amor*, *Ocaña*, *Obabakoak*; en las series de televisión *Centro Médico*, *La víctima nº 8*; y en las películas *La ciudad blanca* y *Pikadero*, por resaltar las más recientes.

Itziar Lazkano ha recorrido todo el Estado con sus espectáculos teatrales, y ha recibido **numerosas distinciones**, tanto en su faceta de actriz como en la de directora (Premio Serantes, premio a la mejor dirección Valdemorillo, premio a la mejor dirección Valladolid, premio Jokularia a la mejor actriz vasca, premio Rosa Aguirre a la mejor actriz, premio Ercilla a la mejor actriz revelación...).

## ARANTZA MATÍAS GURREA

“Por su incansable dedicación y defensa del comercio local y familiar en Bilbao”

Nacida en Bilbao en 1969, es la segunda de los cuatro hijos que tuvieron Rafa Matías y Chelo Gurrea y la única que se dedica al negocio de tejidos al que ha dedicado toda su vida profesional, aunque todos los hermanos han apoyado siempre al negocio familiar en

su trayectoria, así como su tía, Raquel Matías. Casada en 1997 con Óscar Landeta, es madre de dos hijos, María y Lucas.

Su vocación se inició desde muy jovencita cuando acompañó a su padre en un viaje de trabajo a Barcelona con 14 años; con 18 se fue a la Ciudad Condal y estudió Diseño y Marketing en la Escuela de Artes y Técnicas de Moda donde se licenció como primera de promoción en su especialidad. En esos años, simultáneamente, cursó estudios de estampación textil en la Escuela Massana.

Tras un periodo en Cambridge para perfeccionar el inglés, se incorporó a la empresa familiar a finales de 1991 coincidiendo con la apertura de la tienda de la firma en Ercilla 28. Dedicó los primeros años de profesión a aprender a ser comerciante en aquella tienda y siguiendo el ejemplo del mejor profesor que pudo tener, su padre, Rafa Matías.

A finales de los 90 empezó a hacer los catálogos de la empresa, se involucró en la compra que hasta ese momento llevaban íntegramente sus padres- y en la gestión interna de recursos humanos.

La actividad mercantil de la empresa se basaba entonces en comprar y vender, pero para desarrollar la *venta al mayor* era necesario tener una colección de tejidos propia. Aprovechando todos los recursos que ofrecía la amplia trayectoria de Rafael Matías en el sector textil y sus propios conocimientos, en 1999 salió al mercado la primera colección de tejidos exclusivos de la firma, que hoy representa el 70% de las telas que ofrece a sus clientes que otorgan un reconocimiento especial al grupo de los estampados.

Al frente de *Rafael Matías Tejidos* ha vivido las diferentes crisis que han sufrido los sectores comercial y textil en los últimos 15 años, procurando adaptar la empresa a las necesidades coyunturales y responsabilizándose de una plantilla de trabajadores que en 2012 contaba con una antigüedad media de 35 años en la empresa y que en su mayoría están hoy felizmente jubilados.

Hoy se enfrenta al **mayor de los retos** que ha vivido. Las **consecuencias de la pandemia** que nos azota a todos y que ha hecho al sector comercial y textil especialmente vulnerable. Bajo la premisa de la **innovación, resiliencia y modernización**, lidera el último proyecto en marcha: el desarrollo de la venta en entornos digitales.

También y siguiendo la tradición de su padre, que fue siempre un defensor a ultranza del **asociacionismo**, Arantza Matías participó en la fundación de la Asociación de comerciantes de Indautxu, hoy integrada en Bilbao Centro, y fue presidenta de Bilbao Dendak del año 2007 al 2009.

Su padre impulsó, en 1969, la creación de la pionera Asociación de Comerciantes del Casco Viejo de Bilbao y fue presidente de la misma entre 1974 y 1978. Ambos recogieron juntos el premio “Tradición y Futuro” en 2006.

La empresa, ubicada en Bilbao, se dedica a la distribución de tejidos al por mayor y al detalle. Su sede central se ubica en el Palacio de Allende Salazar, adquirido por la familia en 1976 y reformado íntegramente tras las terribles inundaciones del 83, en el número 14 de la calle Correo, siendo este uno de los edificios más emblemáticos del Casco Viejo bilbaíno.